

Abarrak

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

11 Kantatzeko: Ipuin klasikoak bertsoan

GUREAN 3tik 8 urtera artekoek eskatzen dute DVD hau jartzeko. Eta zer arraio, heldu kalakariok pozik, hondoko musika atsegina zaigu bazkalosteko tertulietarako.

Ipuin klasikoak dira gehienak, eta ez hain ezagunak beste batzuk. Hamaika, denera: Hiru txerritxoak, Mari Errauskin, Txanogorritxo, Txori abeslaria, Sant Jordi eta herensugearen kondaira, Zazpi antxumeak, Pinotxo, Oñatiko jentilak, Txixirio txiki, Hamelingo txirularia eta Edurnezuri.

Marrazkiak zoragarriak. Oñatiko Leire Derteanok irudi lezake mundutxo bereko egin dituela pertsonaia denak; oso eskuz egindakoak, umoretsuak, kolore ajatu xarmangarriak.

Ez dute marrazki bizidunen abiadurarik. Eta zer nahi duzue esatea, azertu handia iruditu zait. Erritmo pausatu horretan, presarik gabe baina pausak oso ongi neurtuta ditu. Antton Iztuetak, bideoaren muntaia egin duenak, izango zuen horretan parterik. Iztuetak bertsoak ikasteko material oso baliotsua eginga du lehenago ere, Power Pointekin. Nabari da eskarmentua, bertsoen erritmora eta isiluneetara egokitzen baitira marrazkien mugimendu eta elementu berriak.

Begien patxadak belarriei ematen


die aukera, arreta ulerkorragoa ahalbidetuz. Irudiekin batera, entzuten ari garen bertsoak irakurgai ageri dira pantailan, hizki larriz idatzita (mila esker, irakurtzen

ikasten ari direnekin akordatzegatik!). DVDak ipuin bakoitzaren karaokea dakar, baina modu normalean egongela karaoke bihurtzen da; bertsoak ikasi ahala ikusleek harro kantatzen dute datorrena.

Oskar Estanga eta Olatz Amozarrainen musikak asko jazten du lana. Ipuin bakoitzeko doinu bat, guztira hamaika, neurritz eta moldez bariatuak. Ahots anitz biltzen dituzten ipuinek (Txanogorritxo tarteko) asko irabazten dute.

Urko Egañaren bertsoerak berea duenez, hizkuntza behartu gabe osatutako bertsoak dira, esaldiak berez-berez doaz, lehen entzunaldian ulertzeko samurrak dira, oso narratiboak. Badu margena bertsoak gehiago korapilatzen. Bertsoak bakarrik ez, hitzaurrean azaltzen duenez, proiektua ere oso berea izan da, seme txikiak akuilatutakoa.

Zur eta lur utzi nauena autokoizpena da. Boskote honek hasi eta buka, eurek egin dute dena. Salmenta ere eurengain dago: 11kantatzeko webgunean aurkituko dituzu salmenta puntuak. ■



11 Kantatzeko.

Formatua: DVD-a. Egilea: Urko

Egaña. Lankideak:

Oskar Estanga,

Olatz Amozarrain, Antton Iztueta eta Leire Derteano.

2012an atera-berria. Informazio

osoa: www.11kantatzeko.com



AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1 • 20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com

